

Meza liburua. Luzeegi izango nintzake nolakoa egingo dugunaren zeaztasun guziak esatera baninjoa. Itz batean dana esateko, gaurko egunean diran norma berri eta adelantu guziak aurrean izango ditugu. Gaurkoz, nola dijoan bakarrik esango dizuet. Itzulketa egiña dugu. Ebanjelioak gorago esandako liburu ortan eta Meza liburuan berdin joango dira, batasun aundiagoa dezagun. Sarrerak eta geigarrien batzuk palta zaizkigu. Ba-dakigu lan aundia eramango diguna azken lan onek; ala ere, ainbat len prestatuko dugu. Bitartean sujerentzi guziak onartuko ditugu liburu auetzaz, Nolakoa nai dute gure apaizek?

Oietzaz, gaiñera beste amaika lantto egiñak ditugu, geienak etxerako. Emen sar genitzake, Aste Santuan ainbat kostata zorionez dexente atera zan PASIONEA; Igandero Meza Nagusi ondoren irratiz ematen ditugun gioiak; Arantzazura datozenai ikusgarri emateko egiñak ditugun zortzi gioiak; Arantzazutaz, San Prantziskotzaz eta Palestinako lurraldeetaz; eguberrietan irratiz eman zan A. Iratzeder'en EGUERRI eta etxean egin genitun euskal komediak; oraintxe emengo estudiantetok Mondragoen egin ditugun San Prantziskoren bizitzako estanpak, eta beste toki askotan ere egiteko asmo dauzkagunak... Eta liburuetan ere ba-dira oraindik beste batzuk, baiña bateko baime-nik ez, besteko oraindik erabaki gabeko gauzak... gaurkoz ezin gauza zeatzik eman.

Onatx bada, gutxi bada ere, maitasunik aundienarekin egiña dugun lana.

Arantzazukoak

NOBELA - SARIKETA

EUSKALTZAINDIAREN LAGUNTZAILLEAK deritzan elkarteak, **POLIZI-NOBELA** sariketa ipintzen du.

Ona emen baldintzak:

LENENGOA. — Bear-Bearrekoak dira, bai gaia bai tankera, polizi-nobeletan (novelas policíacas) erabiltzen diranak; naiz **BERRI-ASMATUAK** izan, naiz beste izkuntza batetik **ITZULIAK**.

BIGARRENA. — Edozein euskalkitan idatzi ditezke lanak.

IRUGARRENA. — Idaz-lanak makiñaz idatzita bialdu bear dira, orrialde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik. Folio orrietan (gutxi gora-beera 31,50 × 22 cm. koak), 70 gutxienez eta 90 geienez.

LAUGARRENA. — Lanak **EUSKALTZAINDIAREN LAGUNTZAILLEAK** alkarteari bialdu bear zaizkio. (Palacio de la Diputación de Guipúzcoa - Seminario Julio Urquijo - SAN SEBASTIAN), lema batekin izenpetuak. Lema orren giltza sobre itxi batean bialdu bear da.

BOSTGARRENA. — Sariketa ontarako epea datorren Mikel deunaren egunean bukatzen da. (Irailaren 29'an).

SEIGARRENA.—Iru sari ipintzen dira: Lenengoa, 5.000 pezetakoa; Bigarre-na, 3.000'koa; Irugarrena, 1.000'koa.

ZAZPIGARRENA.—Sari auek nai ta naiez eman bearko dira, baiñan zatituak izan ditezke.

ZORTZIGARRENA.—**EUSKALTZAINDIAREN LAGUNTZAILLEAK** izendatuko ditu epailleak. Sariak banafzeko alderdi auei eta esaten diran arauz begiraturako zaie: a)- Gaiari; b)-Izkuntza-ren egokitasunari; d)- Bi alderdi oiei begiratuaz berdintsu dfranetatik obea-gotzat artuko dira berri-asmatuak, beste izkuntza batetik itzuliak baiño.

BEDERATZIGARRENA. — Sari bana-keta egin da gero, berri-asmatuak diran lanari **MILLA PEZETAZ** geituko dira beren sariak.

AMARGARRENA. — **EUSKALTZAINDIAREN LAGUNTZAILLEAK** (Donostia'ko taldea) deritzan elkarte izango da lenengo saria irabazten duen nobelaren jabe.

Donostia, epaillak 25 - 1960